

PRENTSA OHARRA

Agustín Azkarate, Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Saria 2021

- *Arkeologo eta historialariaren ibilbide unibertsitario, profesional eta akademikoak ematen dio irabazleari dimentsio humanistiko, kultural, artistiko eta sozial nabarmena eta bermatzen du sari hau ematea.*
- *Gazteei zuzendutako deialdian, Ane Zulaikaren “Emakumeak Blai” proiektuak eskuratu du Eusko Ikaskuntza- Laboral Kutxa Gazte Saria.*

Donostia, 2021ko apirilak 29. Eusko Ikaskuntzak eta LABORAL Kutxak aditzera eman dute gaur Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxaren Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Sariaren eta Gazte Sariaren 2021eko epaia.

Edizio berri honetan Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxaren Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Saria Agustín Azkaratek eskuratu du. Hala ebatzi du sariaren epaimahaia osatzen duten Eusko Ikaskuntzaren eremu geografikoko zazpi unibertsitateetako ordezkariak, eta Eusko Ikaskuntza eta LABORAL Kutxako ordezkariak. Bere ekarpenak maila akademikotik harago, dimentsio humanistiko, kultural, artistiko eta sozial nabarmena izan du. Epaimahaiaren ustez, “azpimarratzekoa da bere proiektzioa, akademian eta unibertsitatean ez ezik, transferentzia ere zientzia aplikatuak gizartera egiten asmatu du”.

Haren interes akademikoa espezializazio-arlotik harago doa; izan ere, bere ibilbidean zehar hainbat diziplina landu ditu, guztiak bikaintasun-maila handiarekin. Arkeologia eta Kultur Ondarea dira bere espezializazio-arloak, eta horien eta alboko beste batzuen artean loturak aurkitzeko gaitasunari esker, diziplina anitzeko maila zientifiko handiko ikerketa-taldeak osatu eta zuzendu ditu. Horien bidez, ikertzaile gazte askok bikaintasun zientifikoko prestakuntza jaso dute eta, horrekin batera, gizarte-erantzukizuneko sentimendu sendoa.

Informazio gehiago / Más información
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus

+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)

Diziplina anitzeko dimentsioa da Azkarate irakaslearen nortasunaren ezaugarrietako bat, eta, ildo horretan, puntako erreferentea da zientziaren eta horren erabilgarritasunaren inguruko gizarte-komunikazioan.

Bestetik, epaimahaiak azpimarratu nahi izan du Agustin Azkarateren lanak sakonki uztartzen direla Euskal Herriko errealitatearekin eta gizarte- eta kultura-garapenarekin. Izan ere, Gasteizko Santa Maria Katedrala berritzeko planean ondo baino hobeto islatzen da hori. Hogei urtetik gora iraun zuen «Obretan eta irekita» izeneko programa eredugarriak nazioarteko zabalpena eman zien tenplu gotiko handiaren indusketa arkeologikoko eta zaharberritze historiko eta artistikoko lanei. Ekimen horrek hamaika erakunderen goraipamena jaso zuen.

Azkenik, unibertsitatea erakunde publiko eta pribatuekin lotzeko gogoia da Agustin Azkarateren ibilbidearen beste ezaugarri nabarmen bat.

Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Gazte saria

Ane Zulaika Aranburuk eskuratu du aurtengo Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Gazte Saria "Emakumeak Blai" lanarengatik. Hala erabaki du aho batez epaimahaiak. Bere lanak euskal emakumeek XX. mendearen bigarren erdian itsasoarekin zuten harremana erakustea du xede, euskaraz ekoiztuko den laburmetrai batean.

Pieza hori 2021-2022 urteetako epealdian egingo du eta, zehazki, ikerketa lan bat burutuko du, begirada anitzak behatu, bestelako ahotsak entzun, testigantzak jaso, artxiboak errekuperatu eta horrela emakumeen 60-80 urteetan itsasoarekin zuten harremana irudikatuko du eta hausnarketa berriak sortuko ditu.

Ane Zulaika 31 urtetako donostiarra da. Komunikazioan graduatuta, Artxibo graduondokoa egin zuen Elias Querejeta Zine Eskolan. Azken horretan, ondare zinematografikoa eta ikus-entzunezkoa identifikatzeko, sailkatzeko, zaharberritzeko eta babesteko formazio teorikoa eta praktikoa jaso zuen.

Epaimahaiaren aburuz, lanak sariaren xedearekin bat egiten du guztiz: “ezkutuan egon den emakumearen errealitate bat agerian jartzen du proiektuak eta ahaztuta dauden artxibo amateurrak berreskuratzeko ahalegina egiten du, begirada berriak jasoz emakumearen harremanean itsasoarekiko: naturarekiko konexioa, berdintasuna eta jasangarritasuna balioan ipiniz”.

NOTA INFORMATIVA

Agustín Azkarate, Premio Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa de Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales

- *La concesión del galardón avala la dimensión humanística, cultural y artística del arqueólogo e historiador de larga trayectoria investigadora, universitaria y profesional*
- *En la modalidad dirigida a jóvenes, el Premio Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Gazte Saria ha reconocido el proyecto “Emakumeak Blai” de Ane Zulaika.*

Donostia-San Sebastián, 29 de abril de 2021. Eusko Ikaskuntza y LABORAL Kutxa han dado a conocer hoy el fallo del Premio Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa de Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales, así como del Gazte Saria, en su edición de 2021.

El Premio Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa al mejor currículum en Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales ha recaído en Agustín Azkarate, Doctor en Historia y Catedrático de Arqueología en la Universidad del País Vasco (UPV/EHU). El jurado, conformado por las y los representantes de las siete universidades del ámbito geográfico de actuación de Eusko Ikaskuntza, así como la representación de Eusko Ikaskuntza y LABORAL Kutxa, ha destacado su proyección no solo en la academia y en la universidad, sino también su labor de “transferencia del conocimiento, haciendo llegar las ciencias aplicadas a la sociedad”. En ese sentido, la aportación del Agustín Azkarate posee una notable dimensión humanística, cultural, artística y social.

Por otro lado, sus intereses científicos se extienden más allá de los límites de su área de especialización y, de hecho, a lo largo de su carrera ha cultivado diversas disciplinas, todas ellas con un alto grado de excelencia. Su capacidad para establecer nexos entre la Arqueología y el Patrimonio Cultural con otros ámbitos de investigación, le ha llevado a aglutinar y a dirigir equipos de investigación pluridisciplinarios de alto nivel científico, a través de los cuales muchos jóvenes investigadores han accedido a una formación de

excelencia científica junto a un fuerte sentido de la responsabilidad social.

Esta dimensión pluridisciplinar, que constituye una de sus señas de identidad, hacen del profesor Azkarate un referente de primer orden respecto a la comunicación social de la ciencia y de su utilidad.

Asimismo, el jurado ha destacado la profunda imbricación de sus trabajos con la realidad y el desarrollo social y cultural de Euskal Herria, lo que ha tenido un reflejo muy destacado en el plan de renovación de la Catedral Santa María de Vitoria-Gasteiz. El modélico programa denominado “Abierto por obras”, desarrollado durante más de veinte años, otorgó proyección internacional a los trabajos de excavación arqueológica y de restauración histórica y artística del gran templo gótico, mereciendo el reconocimiento por parte de numerosas instituciones.

Finalmente se subraya el gran esfuerzo del profesor Azkarate para generar vínculos entre la Universidad y las organizaciones tanto públicas como privadas.

Premio Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Gazte saria

Ane Zulaika Aranburu ha sido galardonada con el Premio Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Gazte Saria en su edición 2021 por su proyecto "Emakumeak Blai". Así lo ha resuelto el jurado por unanimidad. Su trabajo aspira a mostrar la relación de la mujer vasca con el mar en la segunda mitad del siglo XX, en un cortometraje que se producirá en euskera.

La producción de este audiovisual se desarrollará durante el periodo 2021-2022 y, en concreto, llevará a cabo un trabajo de investigación, observación de miradas múltiples, escucha de otras voces, recogida de testimonios, recuperación de archivos para retratar la relación de las mujeres con el mar en los años 60-80, generando así nuevas reflexiones.

Ane Zulaika es una joven donostiarra de 31 años. Graduada en Comunicación, cursó el postgrado de Archivo en la Escuela de Cine Elías Querejeta, donde recibió formación teórica y práctica para

identificar, clasificar, restaurar y proteger el patrimonio cinematográfico y audiovisual.

El jurado ha considerado que la propuesta se ajusta plenamente a la finalidad del premio: "El proyecto pone de manifiesto una realidad de la mujer que ha permanecido oculta y trata de recuperar archivos amateurs olvidados, sumando nuevas miradas en la relación de la mujer hacia el mar: poniendo en valor la conexión con la naturaleza, la igualdad y la sostenibilidad".